

GUGGENHEIM BILBAO

VAN GOGHETIK PICASSORA. THANNHAUSER LEGATUA

2018(e)ko irailak 21 – 2019(e)ko martxoak 24

GAIAK | EMAKUMEA LOROAREKIN (LA FEMME À LA PERRUCHE), 1871

[Argazkigintza](#) | [Arkitektura](#) | [Dekorazio-arte](#) | [Eskultura](#) | [Instalazioa](#) | [Pintura](#) | [Serigrafia](#) | [Argazkigintza](#) | [Arkitektura](#) | [Dekorazio-arte](#) | [Eskultura](#) | [Instalazioa](#) | [Pintura](#) | [Serigrafia](#) | [Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia](#) | [Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa](#) | [Hizkuntza eta Literatura](#) | [Informatika](#) | [Teknologia](#) | [Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia](#) | [Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa](#) | [Hizkuntza eta Literatura](#) | [Informatika](#) | [Teknologia](#)

- **SARRERA**



Emakumea loroarekin (La Femme à la perruche), 1871

Olio-pintura mihise gainean

92,1 x 65,1 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Thannhauser Bilduma, Dohaintza, Justin K. Thannhauser

“Eskutitz honekin batera, bi koadroen argazkiak itzultzen ditut. Emakumea loroarekin beranduenera 1871. urtean margotua izango da, data harez geroztik koadro honetarako posatu zuen emakumearen arrastoa galdu bainuen. Edozein moduz, ez dute ezer balio, batez ere Emakumea txori batekin [sic] lanak. Mesedez, ez ezazu gogoia gehiegi berotu zirriborro hauekin” [1]

Pierre Auguste Renoir (1841–1919) Limoges-en jaio zen, Frantzian, 1841eko otsailaren 25ean. 14 urterekin portzelana- -pinturako tailer batean sartu zen ikastun, eta txinatar motiboak bikain margotzen ikasi zuen. Renoirren obra goiztiarrak bi artista frantsesen eragina jaso zuen: Claude Monet-ena, argiaren tratamenduan, eta Eugène Delacroix margolari erromantikoarena, koloreari dagokionez.

Renoirrek Parisen jarri zituen ikusgai bere margolanak lehen aldiz 1864. urtean; hala ere, ez zuen onarpenik jaso 1874. urtera arte, hau da, eskola inpresionista berriaren lehen margolari-erakusketan parte hartu zuen arte. Renoir Inpresionismoko kide nagusietako bat bilakatu zen, eta mugimendu honetako kideek bezala, argiak koloreen eta formen gain duen eragin

GUGGENHEIM BILBAO

iragankorra bereganatzeko interesa izan zuen. Paisaia arretagune izan zuten zenbait margolari inpresionistak ez bezala, Renoirrek bakarkako irudiak edota familia-erretratuak margotzeko interesa ere izan zuen. Bere iritziz, konposizioa eta forma argiaren efektuak bezain garrantzitsuak ziren. Renoirrek Parisko Areto ofizialaren alternatiba gisa antolatzen ziren erakusketa independenteetan jarri zituen ikusgai bere artelanak inpresionistekin batera 1870eko hamarkadan, eta bere ospea 1883. urtean sendotu zen behin betiko Parisko Durand-Ruel galerian bakarka egin zuen erakusketa baten bidez.

Bere bizitzako azken hogeitaz urteetan artritisa izan zuen eta, eskuetako trebetasuna galdu arren besoari lotutako pintzel baten bidez jarraitu zuen margotzen. Renoir Cagnes-en hil zen, Frantzia hegoaldeko herri batean, 1919ko abenduaren 3an.

Koadro honetan lora eusten duen emakumea Renoirren adiskide eta lagun izan zen sei urtez. Lise Tréhot da, eta honen aurpegiera gaztea, artistak 1867. eta 1872. urteen artean margotu zituen beste hamasei mihiseetan aurki daiteke gutxienez. Dama etxeko animalia baten ondoan ageri da erretratuan. Animalia hau, garai hartan, oso preziatua eta ezaguna zen, baita exotikoa ere. Damaren tafeta beltzeko soinekoak, eskumutur zuriak eta begizta gorria dituenak, emakumearen ile beltza eta azal zuria nabarmentzen ditu; hormaren kolore berde ilunak eta landareek, berriz, formala eta oso apaindurikoa dela esan daitekeen barnealdea ematen dute aditzera.

Pintzelkada arina da eta testura efektu oparoak sortzen ditu, eta zera iradokitzen duela dirudi: artistak emakume burges maitagarri eta gaztea aisialdi-une batean irudikatu duela. Aitzitik, koadroko tonu ilunei, emakumearen espresio anibalenteari eta berau kokaturiko espazio klaustrofobikoari erreparatuz gero, irudia azaleko denbora-pasa hutsa ez dela ohartuko gara. Landareetako hosto puntazorrotzek modeloaren gorputzarekin egiten dute talka, honen zein txoriaren espazioa murriztuz. Soinean daraman soineko apainduak, parpailez eta begizta gorritz horniturikoak, zein bere itxura pentsakorrak, emakumearen irudia kaiolan sartutako txoriaren metaforarekin bat etor daitekeela pentsarazten du. Koadro hau Renoirrek "koloreen errege" izendatu zuen kolore beltzaren ospakizun gisa ere deskribatu izan da.

• EZTABAIDAGAIK

Erakus ezazu 1871. urteko Emakumea loraarekin artelana eta eska iezaiezu ikasleei honakoa:

Zer ari da gertatzen irudi honetan? Nola dago jantzita emakume hau? Non dago? Zer du inguruan?

Irudi honek bat-batean bizia hartuko balu, zer gertatuko litzateke? Zein soinu entzungo lirateke? Zer gertatuko litzateke ondoren?

Jar zaitezte koadroko emakumearen jarrera berean. Deskriba ezazue zer sentitzen den.

Deskriba ezazue bere bizitzako egun bat. Zein orduetan jaikitzen da? Zer gosaltzen du? Zein gauza-mota egin ditzake egun arrunt batean?

Koadroko zein xehetasunek berresten dituzte zuen ideiak? Zein antzekotasun edo ezberdintasun ditu, zuen ustez, emakume honen bizitzak zuenarekin? Egun batez bere bizitza bizitza gustatuko al litzazueke? Zergatik?

Deskriba ezazue koadroak aditzera ematen duen ingurua. Zein garaikoa da? Zergatik atera duzue ondorio hori?

GUGGENHEIM BILBAO

Artelan hau “beltzaren ospakizun gisa” deskribatu izan da, Renoirren ustez koloreen errege beltza baitzen. Zergatik pentsatuko ote zuen hori? Zer deritzozue baieztapen horri buruz?

Lise Tréhot-en (1848–1922) erretratua da, artistak pertsonalki ezagutu zuen emakume batena. 23 urte zituen koadro honetarako posatu zuenean. Ahal izango bazenute, zer galdetuko zenioke?

- **JARDUERAK**

Artista batek erretratatu egin beharko bazintuzte, zuengandik zer irudikatzea gustatuko litzaizueke? Zein ingurutan kokatuko zinatekete? Zer jantziko zenukete? Zein jarreratan jarriko zinatekete? Egin ezazue erretratu horren aurretiazko marrazkia.

Artelan honetan 1871. urteko erdi-go mailako emakume bat egoera berezi baterako nola jantzen zen ikus dezakegu. Iker ezazue liburutegian zein Interneten, gizarte maila beheagoko pertsona bat nola jantziko ote zen. Nola islatzen dute garai bakoitzeko modek bizitza-estiloa eta kultura? Nola islatzen du, zehazki, egungo modak gaur egungo bizitza-estiloa eta kultura?

Irakur ezazue unitate honen hasieran aipatzen den aipua. Badirudi Renoirrek ez duela gogoan bere koadroa berrogei urteren buruan berriz ikusitakoan, eta honela dio koadroari buruz: “ez du ezer ere balio”. Zuen ustez, artistak al dira beti beren obren balioa ondoen epaitzen dutenak? Zergatik? Inoiz jaso al duzue laudoriorik baloratzen ez zenuten lanen batengatik? Inoiz aurkeztu al duzue zuen gustukoa izan arren gainerakoen kritikak jaso dituen artelan edo lanik? Nola ebaluatzen dute artistek beren lana?

Emile Zola (1840–1902) idazle frantziarra Renoirren garaikidea izan zen. Zolaren literatur obrak xix. mende amaierako Parisko bizitzako ikuspegia eskain dezake. 1871. eta 1893. urteen artean Zolak hogeitaz nobelaz osaturiko serie bat idatzi zuen Les Rougon-Marquart izenburu orokorraren pean. Aipaturikoek familia bereko bi adarren historia kontatzen dute; Rougontarrena, merkatari burgesena eta, Marquartarrena, kontrabandista-talde batena. Eska iezaiezu ikasleei Zolaren obrako pasarteak irakurtzeko, hots, liburutegian zein Interneten aurkitu ahal izango dituztenak, eta horiei buruzko eztabaida pizteko ikasgelan.

- **HIZTEGIA**

Aretoa: Frantzia, xix. mendean, aretoak izan ohi ziren artista berrien zein ospetsuen artelanak aurkezten zituzten erakustoki nagusiak.

Inpresionismoa: Frantzia, 1870eko hamarkada inguruan. Margolari inpresionistek alde batera utzi zuten kutsu akademikoko margolanetan egiazko espazioaren irudizko itxura gauzatzeko egiten zen bilaketa tradizionala, eta horren ordez, pinturaren aukerak erabili zituzten naturaren efektu iheskorrak eta sentipen bisualaren berezitasunak arakatzeko. Artista inpresionistek baliabide estilistiko berberak erabili zituzten, hala nola pintzelkada soltea eta argilun-teknikaren gutxiespena (argi eta ilunen efektuak).

Pintura erromantikoa: Frantzia, xix. mendearen hasieran. Emozioak, zuzenean eta antzerki-kutsuz margotuz, nabarmentzen zituen arte-estiloa. Artista erromantikoek natura basatia edo paisaia exotikoak margotzen zituzten, sarri historian oinarritutako ekintza dramatikoek betetakoak, eta malenkoniak zein melodramatikoki begiratzen zituzten.

- **BALIABIDEAK**

Los impresionistas y los creadores de la pintura moderna. Carroggio, Bartzelona, 2000.

GUGGENHEIM BILBAO

Walter Pach. Pierre Auguste Renoir. Harry N. Abrams, New York, 1950.

Jean Renoir. Renoir, My Father. Little, Brown and Co., Boston, 1960.

John Rewald. The History of Impressionism. Museum of Modern Art, New York, 1973.

Matthew Drutt (ed). The Thannhauser Collection of the Guggenheim Museum. Solomon R. Guggenheim Museum, New York, 2001.

- **OHARRAK**

[1] Matthew Drutt (ed). The Thannhauser Collection of the Guggenheim Museum. Solomon R. Guggenheim Museum, New York, 2001. 206 or.